

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa Urriaren 7ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:15era

Udako atsedenaldiaren ondoren, gaur Legazpiko Agenda 21eko Foroari ekin diogu berriro. Talde txikia bildu gara, eta Legazpin garrantzitsua den gai bat aztertu dugu: *mugikortasuna*.

Akta honek bileran aztertutako guztia ondo jasotzea eta bilerara etorri izan ezin zenutenoi landutakoa modu egokian adieraztea espero dugu, baina... *azaroko tailerrean zuen guztion zain izango gaituzue!* Izan ere, zuek beti gogorarazten diguzuenez, "Legazpiko Agenda 21eko Foroa ondo zaindu beharreko altxorra da".



● Parte hartzaileak

13 pertsonak parte hartu dute, eta oraingoan ere hauxe esan nahi diegu: **eskerrik asko**, etortzeagatik eta, batez ere, ekarpenak egiteagatik eta zuen ideiak partekatzeagatik!

Pedro Barroso (Nagusilan) ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Floren Gutierrez ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Junkal Fernández ♦ Rafael Gómez (Buskabaso) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Iker Azurmendi (Goieki) ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Ane Mendiñeta (udal arkitektoa) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Horiez gain, Jon Erramun Uribeetxeberria zinegotziak ezin izango zuela etorri adierazi zigun, AGIFESek ordu berean programatutako Buruko Gaixotasunari buruzko filma ikustera joan behar zuelako.

● Landutako gaiak, banan-banan

Albisteak: azkenekoz tailerrean bildu ginenetik egindakoak

Legazpiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza Planean barne hartutako proiektuetatik, zer ekintza garatu dira udan? Zer izan dugu albiste Legazpin?

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zenbait irudiren laguntzarekin, Inmak errepaso labur eta interesgarria egin du; ondoren jaso dugu:

Legazpiko Agenda 21ekin lotuta udan egindako jarduerak:

- **“Bidegorria bizikletarentzat” kanpaina**, guztiok (oinezkoak eta txirrindulariak) bidegorria modu egokian erabiltzeri buruz sentiberatzeko.
- **Mendi irteera Aranzadi elkartarekin**, Legazpiko Natur eta Kultur Ondarearen Inbentarioari buruz egiten ari diren proiektuaren barnean. Bigarren irteera urrian egitekotan ziren, baina apirilera atzeratu dute, udaberriaren egitea nahiago dutelako.
- **“Legazpiko bazterrak” jardunaldia**, “Uztaila kulturala” programaren barnean. Jardunaldi horretan Legazpiko natura ingurunea eta aberastasuna balioesteko eta ezagutarazteko hainbat ekintza egin ziren, eta legazpiarren iritzia jasotzeko galdeketa bat ere egin zen.
- **Berriz erabil daitezkeen 900 edalontzi eta 400 plater erosi dira**. Hemendik aurrera, edalontzi eta plater horiek erabili nahi dituen edozein elkartek Gizarte Zentroari eskatu beharko dizkio, hori arduratzen baita haien kudeaketaz.
- **Mugikortasun astea**, irailean (irailaren 22aren inguruan, “Autorik gabeko Europako eguna” baita). Jarduera hauek egin ziren: bizikletak konpontzeko eta mantentzeko lantegia, bizikleta elektrikoaren erakusketa eta urtero egin ohi den bizikleta martxa; azken horretan beste urte batzuetan baino jende gutxiagok parte hartu du aurtan.
- **“Fokatu Urola Garaia” argazki lehiaketa**, aurtan “Oinez/Caminando” gaia izan duena. Legazpiko Carlos Mediavillak irabazi du lehenengo saria, ondoren ikus dezakezuen argazkiarekin.
- **Erreka eguna** irailaren 25ean egin zen, eta 100 pertsona inguruk hartu zuten parte. 900 kilo zabor atera zituzten errekatik!
- Horri guztiari Urola Telebistan Agenda 21eko Foroari buruz grabatu genuen bideoaren emanaldia (maiatzean eta irailean) gehitu behar diogu.



“Fokatu” 1. saria. Egilea: Carlos Mediavilla

Ez da gutxi! Egindako ahaleginak fruituak eman dituela aitortu behar dugu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Plana: 2008 eta 2010 artean egindako jarduketak eta horien balioespena; hurrengo urratsak

"Albisteak" atalaren ondoren, gaurko tailerreko gai nagusiari heldu diogu, *Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Planari*¹. Gai ezaguna dugu, eta Foroan behin baino gehiagotan landu dugu gai hori; gaurkoan ondorengo ikuspegi honetatik azertu dugu: Legazpiko Udalak 2008. urtean onartu zuen Mugikortasun Iraunkorreko Plana. Orduz geroztik eta gaur arte Planak barne hartzen zituen zenbait proposamen gauzatu dira. Legazpiko planteamenduan eta mugikortasun eskeman aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, eta aldeko eta kontrako iritzia sortu dira.

Une honetan dugun egoera kontuan hartuta, tailerraren bigarren zati honetan honako hauek egiten saiatu gara:

- i. *2008tik 2010era bitartean Plan horretan oinarrituta egindako jarduketak* berrikusi ditugu, labur-labur.
- ii. *Foroak jarduketa horiek nola balioetsi dituen* jaso dugu, horien eraginari eta inpaktuari dagokienez: Foroan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren iritziz, eragina izan al dute aldaketa horiek legazpiarren sentiberatasunean eta lortu al dituzte mugikortasun ohitura iraunkorrak? Bat al dator ikuspegi hori kalean entzuten denarekin?
- iii. Aurrera begiratu dugu, Udalak etorkizunari begira *aurreikusitako jarduketak* ezagutzeko.

Azal dezagun atal bakoitza zehaztasun handiagoz.

i. 2008tik 2010era bitartean Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren barnean egindako jarduketak.

Labur-labur adieraziko ditugu:

- Patrizio Etxeberria kalea egokitu da, 30. eremu gisa.
- Bidegorria egokitu da planean diseinatutako "eraztunean".
- Bizikletak aparkatzeko guneak ezarri dira (batzuk lekuz aldatu dira).
- Laubide kalea oinezkoentzat egokitu da.
- Kultur Etxea, Osasun Zentroa eta Gizarte Zentroa 30. eremuaren barnean egokitu dira.
- Santikutz kalean bidegorria jarri da: Haztegi Ikastolako ingurua.
- Santikutz kaleko espaloia handitu da: Meazti ingurua.
- Kultur Etxetik Juanastegira igotzeko igogailua ezartzen hasi dira.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

ii. Nola balioesten du Foroak aldaketa horien eragina?

Foroko pertsona bakoitzak banaka erantzun dio planteatutako galderari, eta gero ikuspegi guztiak partekatu ditugu.

Egindako jarduketek eragina izan al dute legazpiarren sentiberatasunean eta lortu al dituzte mugikortasun ohitura iraunkorragoak?



Bai

- Bai, lagundu dute. Egoera berriak legazpiarren artean ideiak trukatzeko ekarri du, eta ezkutuan zeuden aldeko eta kontrako iritzia azalera eman dira.
- Nire ustez, poliki-poliki jendea ohiturak aldatzen ari da, baina oraindik asko falta zaigu beste herrialde batzuen mailara iristeko. Azpiegitura gehiago behar direla uste dut.
- Nire iritziz, Laubide kalea oinezkoentzako gunea bihurtzea izan da ohitura aldaketak gehien bultzatu dituenak. Bizikletaren kontuak askoz ere denbora gehiago beharko du, baina alderdi positibo bat azpimarratuko nuke: uda honetan, bidegorri zati handiak bukatu direnean, bizikleta gehiago ikusi dira.
- Positiboak dira, baina jendeari aldatzea kostatzen zaio.
- Oinezkoentzako gunea: inguru horiek hobetu ditu eta kaleko bizitza handitu da. Bidegorria: erabiltzaileak ugari dira, baina nagusiki jende gazteak erabiltzen du.
- Nik baietz uste dut. Pentsamoldea aldatzea eta aldaketa guztietara ohitzea kostatu egiten zaigu.
- Nire ustez bai. Urrats txikiak eman dira, baina denbora beharko da, denbora asko (eroskerian erori gara guztiok).

Ez hainbeste...

- Autoa erabiltzen ohituta dagoenari kostatu egiten zaio autoa uztea eta oinez ibiltzea.
- Aparkalekuak: bidegorria egiteko kendu aurretik aparkaleku berriak eraiki beharko liriteke.
- Ekintza horiek mugikortasun ohiturak aldatzen ari dira, erdizka bada ere. Argi dago planaren arabera ekintzak egin izan ez balira, ez genukeela ezer egingo. Ekintza horiek batzuetan ondo onartu ez badira ere (zirkulazio aldaketak, bidegorria, etab.), poliki-poliki beren funtzioa betetzen hasi dira, eta Mugikortasun Planarekin aurrera jarraitu beharra dago.
- Aparkalekuak. Non utzi behar ditugu autoak?
- Oso gutxi aldatu dira ohiturak, ia batere ez. Bai zirkulazioa eta bai aparkatzea ordaindu egiten dira, eta beraz, eskubidetzat hartzen dira.

Laburbilduz, ondorio hauek atera ditzakegu jasotako iritzietatik:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Egindako jarduketan *eragina nabaritzen hasi da, baina poliki-poliki*. Denbora gehiago behar da mugikortasun ohiturak eta pentsamoldea aldatzeko.
- Gure ustez, herritarren mugikortasun ohiturak aldatzeko helburua duen Mugikortasun Iraunkorreko Planaren aldeko apustua egin duen inguruko *lehenengo udalerrria* garenez, herritarrei zailagoa egiten zaie aldaketak onartzea (batez ere aldaketak atsegin ez dituztenei). “Zergatik gara gu bereziak gainerakoek bide tradizionalari eusten dioten bitartean?”. Hala ere, legazpiar batzuk “harro” agertzen dira egindako apustuarekin.
- Legazpiarrek hobeto barneratu eta onartu dituzte *oinezkoaren* mugikortasunari dagozkion aldaketak. Oinezkoen guneen eraginak positibotzat jotzen dira: distantziak txikiagoak dira, espazio publikoa atseginagoa da...
- Aitzitik, gehiago kostatzen da *bizikleta erabiltzearen aldeko* apustua barneratzea. Iritziak askotarikoak dira: pertsona batzuk guztiz alde daude (esate baterako, haurrak dituzten familiak, bizikletaren erabileraren alde sentiberatutako pertsonak...), eta beste batzuk, aldiz, guztiz kontra (bizikletaren/autoaren eta bidegorriaren/aparkalekuen arteko lehiagatik).
- Erronka nagusia *autoak* ematen duen *erosotasuna* gainditzea da: ibilgailua aparkatuta uzten ohitu behar dugu (ahal den neurrian), hala, mugikortasuna sustatzeko, oinez, bizikletan edo garraio publikoaren bidez.
- Eta, jakina, beharrezkoa da *sentiberatzeko eta hezteko* ahaleginarekin aurrera jarraitzea, maila guztietan: gidariek, oinezkoek eta txirrindulariek, guztiek modu egokian joka dezaten espazio guztietan.

iii. Mugikortasun Iraunkorreko Planean aurreikusitako jarduketak

Orain arte egindakoak aztertu ondoren, Udalak xehetasun azterketa bat egiteko eskatu dio Endara enpresari, Plana idatzi duen enpresari, Mugikortasun Iraunkorreko Planeko zenbait puntu sakonago aztertzeko.

Hala, bada, eta egindako azterketan oinarrituta, Ane Mendinuetak (udal arkitektoa) epe laburrean eta ertainean egin nahi diren jarduketak aurkeztu ditu. Esate baterako, honako hauek adierazi ditu: Txorroneatik kiroldegira eta industrialdeara doan bidegorria; Aitzkorri kaleko eta Plazaola kaleko bidegurutzeetarako irtenbideak, eta Aiztonaga kalekoa eta Bikuñaenea plazakoa; industrialdeko biribilgunea² eta irtenbide berriak; edo Urtatzolarako proposamena.

Dena dela, hasierako zirriborroak baino ez dira, eta txukuntzen eta eztabaidatzen jarraitu beharko da; epeak kasuan kasu zehaztuko dira.

Helburua oso argia da: *Legazpiko mugikortasunaren eskema osoa modu argian eta osotasunean irudikatzea, denbora horizonte zabala eta aukera desberdinak eskainiz; eta urratsez urrats helburu guztiak lortzea*. Hori bai erronka!

² Gai honekin lotuta, Javier Iraetak, EAJ alderdi politikoaren izenean, Endara enpresari biribilgune hori egiteko proposamen berriak eskatzeko galdegin dio Udalari, errepidearekiko lerrokatuta geldidadin (parkeari eragin edo ez). Sote Plazaolak adierazi du gai horri buruz uda aurretik Foroak egindako bileraren emaitzetan oinarritutako irtenbideak eskatu zaizkiola Endara enpresari. Hau da, parkea errespetatuko dutenak eta maldak izan ditzakeen irtenbideak landuko dituztenak.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

iv. Beste gai batzuk (Foroko pertsonen parte-hartzeak)

Foroak planteatutako galdera batzuei emandako erantzunak ere jaso ditugu:

- *Noizko Brinkolatik Telleriartera bitarteko bidegorria?* Sote Plazaolak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zela proposamen hori, baina gaiak luze joko duela. Foru Aldundiak bidegorri "funtzionalei" ematen die lehentasuna (herriguneak industrialdeekin lotzen dituztenak, adibidez, eta ez aisialdikoak); horrekin lotuta, guztira 280 pertsona bizi diren auzoekiko lotura errazteko beharra jakinarazi dio Udalak.
- *Nola egiten da haur parkeen mantentze lana?* Soterok esan du haur parkeak Udalarenak direla, eta Udalak egiten dituela mantentze lanak, horretarako zehaztutako arauen arabera.

● Agur, hurrengo tailerrera arte

Behar baino gehiago luzatuta, 20:15ean tailerra amaitutzat jo dugu. Eta gustura egin dugu, poliki-poliki Legazpin mugikortasun iraunkorragoaren aldeko apustuak fruituak ematen hasi dela ikusita. Prozesu luze eta batzuetan zail honetan lehenengo aldaketak ikusten hasi gara.

Azaroaren 4ko bileran ikusi nahi zaituztegu, beti bezain baikor! Gure artean izatea espero dugu, badakigu-eta gaia atsegin duzuela: *Aranzadikoekin izango gara berriro, Legazpiko Natur eta Kultur Ondarearen Inbentarioa lantzen jarraitzeko.*

Ordura arte, onak izan!
Eskerrik asko! ¡Muchas gracias!